

Gure produktua ez dauka bezero zehatzik. Zakarrontzi bat denez, kaleetan egongo lirateke eta hiri edo herri bateko biztanle guztiek erabiliko lukete. Egia da, gure bezero printzipala hirien udala izango litzatekeela hasieran, haiek finantzatu gaituztelako eta zakarrontziak kokatu beharko lituzketelako kaleetan zehar. Udalarekin zenbait batzar eduki beharko genituzke prezioa, kokapena... adosteko. Horretarako udalaren internet plataforman sartu beharko ginateke eta hor gure proiektua azaldu ezaugarri guztiekin, abantailekin eta gure arrazoiak proiektu hau aurrera eramateko azaltzen.



Biztanleriarekin harremana desberdina izango litzateke, laguntza kolektiboa ezartzen. Hau da, biztanle batek gure zakarrontzi bat erabiltzerako momentuan ikusten badu apurtuta dagoela edo edozein arazo dagoela, gurekin harremanetan jarri ahal izango zen gure enpresaren web orrialdearen bitartez arazoaz ohartarazteko eta ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko.

Gure proiektua ondo badoa eta denbora aurrera joan ahala, pentsatuta daukagu zakarrontzi txikiagoak egitea, etxean eduki ahal izateko. Ideia hori garatuta izanda, denda fisikorik edukiko ez dugunez, zakarrontzi bat erosi ahal izateko gure web orrian sartu beharko ziren eta hortik erosi. Guk arduratuko ginateke zakarrontzia zehaztutako helbidera bidaltzea ahalik eta azkarren. Gure Web orrialdea erabiliko ahalko zen baita ere arazoren bat izanda, hau konpontzen saiatzeko.



Bezeroak nola eskuratuko ditugun aztertzen badugu, lehenengo pausua hiri baten udalarekin hitzaldi bat lortzea da. Hitzaldi hau izanda, dena ondo prestatu gure produktua ondo saltzeko abantailak adierazten eta zein arazo konpontzen duen azaltzen.

